



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/01/26

Ekonomia eta Ogasuneko batzordeak, oposizino barik, Bizkaiko ogasuneko zordunen argitalpena adostu dau

Bizkaiko Batzar Nagusiek, martiaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributuei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorra aldatzeko Foru Arau proiektua onartzeko lehenengo pausua emon dabe gaur. Bertan, beste aldaketa batzuen artean, milioe bat euro baino gehiagoko “tributu zorrak edo zehapenak” daukiezan zergadunen zerrendea argitaratzeko aukerea zabaltzen jako Foru Ogasunari, joan dan abenduan Estaduko Tributuen Agentziak egin dauen antzera. Arau proiektua idatzi dauenak –Foru Aldundiak– esan dauenez, neurri hori, iruzur fiskalaren kontrako “prebentzinozko eta hezkuntzazko tresna” moduan ulertu behar da. Batzordean aldeko 10 botogaz (EAJ-PNV, PSE-EE eta PP) eta 4 abstentzinogaz (EH Bildu eta Podemos Bizkaia) onartu dan erespena osoko bilkureak berretsi beharko dau orain, indarrean sartu daiten.

Bizkaiko Batzarretako Ekonomia eta Ogasuneko batzordean izandako eztabaidea, zordunen zerrenda horretan agertzeko gitxieneko kopuruan zentratu da. Zuzenketa-eske baten bitartez, EH Bilduk muga hori 100.000 eurotan jartea gura izan dau, baina Bizkaiko Foru Aldundiak planteau dauen testuaren alde agertu diran hiru taldeek ez dabe hori onartu “oso kopuru baxua dalako”. Orokorrean, aldaketeak, Estaduko generako lekuetan apliketan dan legedia Bizkaian be apliketea eragingo dau.

Aldaketeak artikulua barria gehitu dau, Bizkaiko Ogasunagaz 1.000.000 euroko kopurua gaintzen dituen “zorrak edo zehapenak” daukiezan iruzurgileen “ulertzeko moduko” zerrenda horreek “aldian behin” argitaratzeko, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak azaldu dauenez. Ogasunak 2016ko bigarren seihilekoan argitaratuko leuke lehenengo zerrenda hori, martiaren 31n itxitako datuakaz. Dana dala, arauak ezarten dauenez, hurrengo urteetarako erreferentziazko data urte bakoitzeko abenduaren 31 izango litzateke. Horren eragina jasaten dabenek hamar eguneko epea eukiko dabe alegazinoak aurkezteko, eta alegazinoek ez badabe kontraktorik esaten, euren datuak –izena eta IFZ–, pertsona fisikoak edo juridikoak badira be, hiru hilebetz argitaratuko dira, baliabide telematikoen bitartez.

Arau proiektuari “ondo etorria” emon deusie batzarretako talde guztiek, “jokaera gaitzesgarriak” zabaltzeko neurri barri moduan hartu dabelako. Dana dala, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeak abstenidu egin dira, ezarri dan mugea “altuegia” dala uste dabelako. Halandabe, koalizino abertzalea muga hori negoziatuko prest agertu da, talde horren ustetan, une honetako terminoetan “hankamotz” geratzen dalako.

Arau proiektuaren alde agertu diran taldeek azpimarratu dabenez, “pauku garrantzitsua” da iruzur fiskalaren kontrako burrukan. PPko Arturo Aldecoak esan dauenez, “akuilua izango da, jendeak ez daian zorrik euki” Ogasunagaz. Milioe bat euroko mugea “pauku egokia” da, eta etorkizunean barriro aztertu egin beharko da, baina beti be kontuan izanda intimidaderako eskubidea eta datuen babesari buruzko legedia gardentasunerako neurriakaz uztartu behar dirala, adierazo dabe Alexia Castelok (PSE-EE) eta Janire Bijueskak (EAJ-PNV). Batzordekide biek esan dabenez, “gaitza da alderdi biak neurrian hartzea”, beti ez dagoalako “engainua egiteko helburua” zergadun horreen jokaeretan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

SAN MAMES BARRIKO ARKITEKTOAREN AGERRALDIA

Batzordeak aho batez onartu dau EH Bilduko batzarretako taldeak eskatu dauen agerraldi eskaerea, César Azkarate San Mames Barriko arkitektoa Batzar Nagusietara joan daiten, San Mames Barriko estalkia handitzeko asmoa dala eta sortu dan egoeraren barri emon daian. Koalizino abertzaleak, estalkiaren ordainketea bere gain nork hartu behar dauen “argitzeko” informazinoaren bilaketa prozesuan sartu dau agerraldi hori. Zigor Izuskizak adierazo dauenez, “zalantzak” dagoz Athletic taldearen zelai barriaren “iragazgaiztasunari” jagokonez haserako proiektuan “akatsak” egon ete ziran gaiaren inguruan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
26/01/2016

La comisión de Economía y Hacienda acuerda, sin oposición, la publicación de los deudores del fisco vizcaíno

Las Juntas Generales de Bizkaia han dado el primer paso para sacar adelante el proyecto de Norma Foral de modificación de la Norma Foral 2/2005, de 10 marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, en la que se pretende incorporar la posibilidad de que la Hacienda foral publique un listado de contribuyentes con “deudas o sanciones tributarias” superiores al millón de euros, en parecidos términos a como lo ha hecho la Agencia Tributaria estatal en diciembre pasado. Esta medida hay que enmarcarla, según los redactores del proyecto normativo – la Diputación-, como un “instrumento preventivo y educativo” en la lucha contra el fraude fiscal. El dictamen que ha sido aprobado en comisión por 10 votos a favor (PNV, PSE-EE y PP) y 4 abstenciones (EH Bildu y Podemos Bizkaia), deberá ser ratificado ahora por el pleno para su entrada en vigor.

La discusión en la comisión de Economía y Hacienda del parlamento vizcaíno se ha centrado en fijar la cantidad mínima a partir de la cual un deudor pasaría a formar parte de este listado. A través de una enmienda, EH Bildu pretendía que el límite se situara en los 100.000 euros, algo que ha sido desestimado, “por excesivamente bajo”, por los tres grupos que han apoyado finalmente el texto planteado por la Diputación foral de Bizkaia, que, en líneas generales, viene a trasladar la legislación que ya se aplica en el resto del Estado.

La modificación viene a añadir un nuevo artículo para la publicación “periódica” de estos listados “comprensivos” de infractores por “deudas o sanciones” tributarias con la Hacienda vizcaína que supere el importe de 1.000.000 de euros, según ha explicado el diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga. Hacienda publicaría este primer listado durante el segundo semestre de 2016 con cierre de datos a 31 de marzo, aunque la norma establece como fecha de referencia para años posteriores el 31 de diciembre de cada año. Los afectados tendrán un plazo de diez días para presentar alegaciones y, si éstas no surten efecto, sus datos –nombre y NIF-, ya sean personas físicas o jurídicas, pasarían a ser publicados por medios telemáticos durante tres meses.

El proyecto de norma ha sido “bienvenido” por todos los grupos junteros que lo han considerado una nueva medida para hacer públicas “conductas reprochables”, si bien EH Bildu y Podemos Bizkaia han decidido abstenerse ya que consideran que el límite fijado es “demasiado elevado”. Pese a ello, la coalición abertzale se ha mostrado dispuesta a negociar este límite que en los términos actuales, según ellos, hace que la norma se queda “coja”.

Los grupos que han apoyado el proyecto de norma han destacado que supone un “paso importante” para la lucha contra el fraude fiscal. “Será un acicate para que la gente no tenga deudas con la Hacienda”, ha dicho Arturo Aldecoa, del PP. El límite de un millón de euros es un “paso adecuado”, que podrá ser revisado en el futuro, pero teniendo en cuenta que hay que conjugar el derecho a la intimidad y la legislación sobre protección de datos, con las medidas de transparencia, han señalado Alexia Castelo (PSE-EE) y Janire Bijueska (PNV). Ambas apoderadas han advertido que es “difícil ponderar” ambas cuestiones, ya que no siempre hay un “ánimo doloso” en las conductas de estos contribuyentes.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

COMPARECENCIA DEL ARQUITECTO DE SAN MAMES BARRIA

La comisión ha aprobado por unanimidad la petición de comparecencia solicitada por el grupo juntero EH Bildu para que el arquitecto de San Mames Barria, César Azkarate, acuda a las Juntas Generales a informar de la situación generada con la futura ampliación de la cubierta de San Mames Barria. La coalición abertzale enmarca esta comparecencia en la búsqueda de información para “aclarar” quién debe hacerse cargo del pago de la cubierta. Zigor Izuskiza ha señalado que existen “dudas” sobre si ha habido o no “deficiencias” en el proyecto inicial en torno a la “impermeabilización” del nuevo campo del Athletic.